


Industri balio erantsiak %5,9ko hazkunde nominala izan zuen 2006an Euskal AEn

Eraikuntza, azken urteetan bezalaxe, %9,4 hazi zen

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2006an Euskal AEko industri sektoreko balio erantsian %5,9ko hazkundera izan zen. Batez bestekoaren gainetik hazi diren industri sektoreak hauek izan dira: Metalurgia eta metalezko gaiak, Ez-metalezko industria, Zurgintza, Material elektrikoa eta Makineria.

Industri enpleguan %0,5eko hazkundera izan zen 2006an, eta 16 industri sektoreetako 6retan, hazkundera ehuneko horren gainetik ibili zen. Azken hamar urteetako balantze moduan, **industri sektorean ia berrogeita hamar mila enplegu gehiago ditugu, 1997ko 202.088tik 2.006ko 250.862ra.**

Industria-sektorearen bilakaera 1997-2006. Hazkunde tasak (%)



Iturria: Eustat

2006an, Euskal AEko industri bilakaeran, hauek izan dira alderdi aipagarrienak:

Industri balio erantsiaren hazkundera Euskal AEko sektore pisutsuenen hazkunderan bermatu da. Energia elektrikoa, gasa eta ura %15,4 hazi zen, Metalurgia eta metalezko gaiak %9,2, Makineria %7,5 eta Material Elektrikoa %7,5 baita ere. Sektore hauetan ere hazkunde aipagarriak izan ditugu: Larruaren eta oinetakoen industria (%33,4); Ehungintza eta jantzigintza (%26,9); Zurgintza (%14,7); Ez-metalezko industria (%9,4); Metalezko eta ez-metalezko meak (%8,0). Horiek denak industriako batez bestekoaren gainetik ibili ziren. Hazkunde negatiboak hauek izan zituzten: Petrolio finntzea (%-29,6); Kautxu eta plastikoa (%-4,3) eta Elikaduraren industria (%-1,3). Batez bestekoaren azpitik izan ziren, baita ere: Garraio materiala (%4,0); Papera, edizioa eta arte grafikoak (%4,8); Industria kimikoa (%4,8) eta Beste manufakturak (%5,5).

Ustiapeneko soberakin gordina %6,8 igo da, hazkunderik handienak sektore hauetan izan direlarik: Energia elektrikoa (%18,0); Ez-metalezko industria (%17,9); Metalurgia eta metalezko gaiak (%15,9) eta Makineria (%10,6).

Industriako cash-flowa %4,9 hazi da eta Zerga aurreko emaitza %2,6

Industriako aldagai nagusiak. Euskal AE. Uneko prezioak.

	<i>Balioa: €ak, milakotan</i>		
	2005	2006	Δ %
Landunak	249.696	250.862	0,5
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	15.701.676	16.624.164	5,9
Ustiapeneko soberakin gordina	7.100.123	7.582.819	6,8
Egindako inbertsioak	2.763.023	2.680.690	-3,0
Amortizazioak	2.397.019	2.615.136	9,1
Negozio-zifrak	52.957.698	57.760.863	9,1
Ustiapen-kontsumoak	30.474.122	33.669.438	10,5
Kanpo-zerbitzuak	7.083.023	7.639.109	7,9
Lagileria-gastuak	8.601.553	9.041.345	5,1
Zergen aurreko emaitzak	4.412.763	4.525.347	2,6
Cash-Flow-a	6.809.782	7.140.483	4,9

Iturria: Eustat

2006an jaitsi egin dira Industriak egindako inbertsioak, %-3,0.

Negozio zifra %9,1 hazi da 2006an, aurreko urtearen aldean.

Enplegu-hazkunderik handienak: Petrolio finntzea (%5,3), Zurgintza (%4,2), Material elektrikoa (%3,2). Baina Metalurgia eta metalezko gaietan izan da enplegu-sortze garbi handiena azken urtean, 1.076. Bestalde, Pertsonal-kostuak %5,1 hazi ziren.

2006an Gipuzkoak izan zuen industri hazkunderik handiena, %8,6. Makineriak (%8,6) eta Metalurgia eta metalezko gaiak (%9,0) azpimarragarriak dira. Bizkaian %4,6 hazi zen industria eta %3,8 Araban.

Eraikuntzaren sektorea %9,4 hazi zen 2006an

Eraikuntzaren sektoreak %9,4ko hazkunde nominala izan zuen Euskal AEn. %9,5 Araban, %6,2 Bizkaian eta %16,8 Gipuzkoan

Eraikuntzako aldagai nagusiak. Euskal AE. Uneko prezioak.

	<i>Balioa: €ak, milakotan</i>		
	2005	2006	Δ %
Landunak	93.176	96.312	3,4
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	4.566.481	4.996.500	9,4
Ustiapeneko soberakin gordina	1.694.332	1.829.851	8,0
Egindako inbertsioak	437.565	347.103	-20,7
Amortizazioak	200.116	246.969	23,4
Negozio-zifrak	14.183.643	16.615.279	17,1
Ustiapen-kontsumoak	9.411.217	10.215.128	8,5
Kanpo-zerbitzuak	1.411.170	1.614.433	14,4
Lagileria-gastuak	2.872.149	3.166.649	10,3
Zergen aurreko emaitzak	1.329.323	1.424.258	7,1
Cash-Flow-a	1.529.439	1.671.227	9,3

Iturria: Eustat

Eraikuntzan %3,4 hazi zen langileria, 2005ean baino puntu erdia gehiago. Guztira 96.312 pertsona, aurreko urtean baino 3.136 gehiago.

Ustiapeneko soberakin gordina %8,0 hazi da eta Pertsonal-kostuak %10,3.

Aurten egindako inbertsioak %20 gutxiago izan dira aurreko urtean baino.

Negozio zifra %17,1 hazi da, urteko tasan, 2006an.

Zerga aurreko emaitzak %7,1 hazi ziren; Cash-flowa %9,3, eta Amortizazioak %23,4.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Iosune Azula Lazkano

Tel:+34-945-01 75 09 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp